

# Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

## Tanzaniari urre gorrizko lepokoa ezarri diote

Zer da hobe herrialde batentzat, aberastasun urriko eremu batean ala oinpean urre gorria tonaka dituen batean egokitu izana? 43 milioi tanzaniarretako askok hori galdetzen diete beren buruei: multinazionalak lurpetik altxorra eramaten ari zaizkie hondakinak bertan utzita.

39.000 MILIOI DOLARREKO ALTXOR baten gainean datza Tanzania. Baina Dar es Salaameko gobernuak ez badizkie behar bezalako baldintzak ezartzen urre gorri hori lurpetik atera eta atzerrira daramatenei, dagoeneko munduko herrialderik txiroenetakoa dena are sakonago jausiko da miserian.

Lurralde munduko herrialdeen zerrendan 27.a den Tanzania –Espainiako erresumaren bi halako zabalera– 43 milioi jende bizi dira, Nazio Batuen Erakundeak giza garabepena neurtzeko indizean 153. daudenak. Hitz batez, buruko eta urteko 520 dolarreko aberastasuna kontabilizatzen dutelarik, tanzaniarrak munduko txiroenetakoak dira. 12-16 milioi herritar bizi da egunean dolar bat baino gutxiagorekin.

Wikipediak eta bestelako iturriek aipatzen dute independentziaz geroztik Tanzania martxan jarritako sistema sasi-sobietarrak –nola-bait laburtzeko esanda– herrialdea porrotera eraman zuela, beste oker frankoren artean baserrietako herrixkak deseginez, populazioak kontzentratuz eta nekazaritza tradizionala suntsituz.

1980tik justu alderantzizko botika errezetatu zaie tanzaniarrei. Alegia, Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren estrategiak gordintasun betean: publiko

zen guztiaren pribatizazioa eta merkatuaren araugabetzea. “Egituren Egokitzapenerako Programa” bataiatu zuten botikak ezartzen zuten, Afrikako beste herrialdeen-tzako bezala, “Tanzaniaren garapena gehiago dagoela loturik mundu mailako ekonomian bere lekua egitearekin, etxe barruko ekonomian zentratzearekin baino”.

Hitz lauz esateko, ahaztu ezazue barneko kontsumoa, industria eta nekazaritza eta esportatu daukazuna, lehengaiak.

Hori meatzaritzan zertan mamitu den esplikatu berri du Khadija Sharife idazle eta irakasleak *Tanzania's pot of gold* (Tanzaniaren urre altxorra) artikuluan. *The Thinker* aldizkari hegoafrikarrak publikatu dio, *Pambazuka News*ek handitu diolarik oihartzuna. “Ortzadarraren muturrean irabazi askorik ez zegoen” dio bigarren tituluan, horrela konparazioa eginez ingelesez aipatzen den mitoarekin, hots, urrea dagoela gorderik ortzadarraren ertzean... Topatu ezinezko lekuan, koanto.

45 milioi ontza urre omen datza Tanzania zorupean, denetara 39.000 milioi dolar balio behar dutenak. Joan deneko bost urtetan Barrick Gold kanadarraren eta Anglo-Gold Ashanti hegoafrikarraren artean 2.500 milioiko balioko

Anglo-Gold Ashanti korporazio hegoafrikarrak bere webgunean erakusten du argazki hau, Geita eskualdeko urre meategiari dagokiona. Kanadan eta Hego Afrikan egoitza duten korporazio handiek hondeatzen dituzte Tanzaniako meatoki oparoenak, makineria modernoa usatuz eta 10.000 langile enplegatuz. Ondoen pagatutako beharginen ondoan, beste milioi erdi omen dabil urre bila egitura informaletan, beltzean. Halako jarduera ekonomiko erraldoiak oso diru gutxi lagatzen du Tanzania bertan, etekin guztiak atzerrira eramanda. Hondamendi ekologikoa, ekosistemaren galera eta sekulako kutsadura geratzen dira Tanzania. Zianurotan bakarrik, urtean 8.000 tona baino gehiago isurtzen da oihan, zelai, erreka eta aintziretan.

metala esportatu omen dute, eta aldiz bertako gobernuak urteko 22 milioi dolar baino ez du eskuratu, denetara 110 milioi. Multinazionalak mugitzen duten sosaren eta estatuari lagatzen dioten huskeriaren arteko proportziorik eza tamaina horretakoa izan da, hain justu lehen-gaien prezioa izugarri garestitu den garaian.

Sharifek, desoreka hau esplikatzeko, Tundu Lissu abokatu tanzaniarrak eta Mark Curtis historialari britainiarrak egindako ikerketa batera jo du, non xehatzen baita zein estrategia darabilten korporazioek deus edo ia deus ez pagatzeko.

### Urrea nire, zianuroa hire

Urre meatzetan ari diren bi korporazio nagusiek, Barrick Goldek eta Anglo-Gold Ashantik gobernuari pagatzen dioten kasik bakarra tasa arruntei dagokiena da. Aldiz, ogasun publikoarentzako diru sarrera oparoa izan beharko lukeen etekinen gaineko zerga –Tanzanian %30koa– behin ez dute ordaindu. Adituek kalkulatu dute 1999tik 2003a artean 500 milioi dolarretik gora galdu zituela Tanzania iruzur horrengatik.

Korporazioek etekinen gaineko zergarik ez dute ordaintzen... etekinak ez baina galerak omen dauzkatelako. Nola liteke, ateratzen duten



urre guztiarekin eta urreak gaur egiten duen txistuarekin? Ezin da jakin. Eta ezin omen da jakin korporazioek gobernuarekin sinatuta dauzkatelako konfidentzialitate klausulak, ezinezko egiten dutenak enpresen kontuetan beste inork sudurrik sartzea, ez auditoreek eta ez ogasun publikoak.

Munduko Bankuaren gerizpean eraikitako legediaren arabera, askatasun osoa dute kasik edozertarako atzerriko korporazioek Tanzanian. Bertako enpresen jabe izan daitezke %100ean. Aldiz, gobernuak ezin du horien alorretan enpresa publikorik sortu. Korporazioek nahi adina langile ekarri dezakete atzeritik eta nahi beste diru atera herrialdetik. Gobernuak ez dauka haien diru

kontuak kontrolatzeko mekanismo-rik eta espreski dauka debekatua zerga politikan aldaketarik sartzea.

2004an ausartu ziren agintari tanzaniarrak kontu handiz tasak pittin bat mugitzen saiatzera, eta berehala aurkitu zituzten aurrez aurre meatzarien lobbyak, munduko finantz erakundeen ordezkariekin elkar hartuta. Hori publikoki onartua du garai hartan Dar es Salaamen Industria eta Merkataritza ministroa zen Basil Mrambak.

Esan behar da gobernuak berak uko egiten diola urregile erraldoiekin sinaturik dauzkan tratuak publikatzeari. Multinazionalen indarraren ifrentzua delako bertako politikarien saldukaria. Iturri asko kalkulatu dute Tanzaniako estatua-

ren aurrekontuaren %20 ustelkeriaren hodietan galtzen dela. Funtzionarioek sarri herrialdearentzako zergak eskuratzen baino berentzako eskupekoa lortzen xahutzen dituzte orduak eta ahalak.

Ororen buru, Khadija Sharifek salatu duenez, “meatzea erauzten gaurko abiadan jarraitzekotan, hau da, urteko 1,6 milioi ontza bost meategi nagusietan (Geita, Tulawaka, North mara, Bulyanhulu eta Buzwangu) espero behar da Tanzaniako urrea 28 urteren buruan agortzea. Horrek eraman du Meategietarako Aholkularia esatera urrearen aferan “konpainiek *panga* (matxetea) kirtenetik daukatela eta guk aho zorrotzetik”.

Enpresen argudioak alderantzizkoak dira, noski, Barricetako bozemaileak deklaratu duen moduan: “45 milioi ontza urreri baldin badagokio 39.000 milioi dolarreko altzorra, esan behar da guztia oraindik lurpean datzala. 45 milioi ontza urre harkaitzean, zoruan, deus balio ez dutenak norbaitek aurkitu eta lurrari kendu arte”.

Urrearen sukarrak 550.000 langile mugiarazten ditu gehienak enplegu informalean, beltzean, eta multinazionalak ez dituzte 10.000 baino kontratatu. Ordainetan, harrobieta-ko hondakin mendiak handituz doaz. Ontza bat urre eskuratzeko (28 gramo) 79 tona hondakin. Gehi prozesuan erabiltzen diren merkurioa, beruna, zianuroa eta beste. Zianuro hilgarritik, ontzako bost kilo. Anglo-Gold Ashantik bakarrik 2008an 2.200 tona zianuro.

Munduan urrea garesti dabil asteotan. Tanzanian aspalditik. ■



ZINKUNEGI  
OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,  
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net

